

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun Departamentuak paziente onkologikoei jasotzen duten informazioa hobetuko du beren gaixotasunari egokiago aurre egin diezaioten

Prozesu onkologikoetan mediku eta pazienteen arteko komunikazioa hobetzeko proiektu baten gomendioetako bat da

Viernes, 07 de noviembre de 2014

Osasun Departamentuak paziente onkologikoei ematen zaien informazioa hobetuko du behar bezala, zuzen jasoko dutela bermatzeko eta beren gaixotasunari egokiago aurre egin diezaioten.

[Profesional eta paziente onkologikoen arteko komunikazioa hobetzeko proiektu](#)etako baten

gomendioetako bat da hori, eta hura gaur goizean aurkeztu dute Osasun kontseilari Marta Verak eta Osasunbideko Pazientearen Arreta eta Kalitateko zuzendari José María Iribarrenek, proiektua egin duen unitatea. Handik ateratako ondorioek proiektuaren hurrengo faseko lan-ildoak markatuko du, hobetzeko proposamenen diseinua, datozen hilabeteotan Nafarroako Ospitaleguneko medikuek eta Pazientearen Arretako langileek osatutako lantalde batek egingo duena, eta Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartearen laguntza jasoko dute.

Proiektuaren jatorria 2013ko urrian garatutako paziente onkologikoen arretari buruzko [Osasun Foro](#) batean kokatzen da; bertan egiaztatu zen, paziente eta profesionalen adierazitako zailtasunen % 50 inguru komunikazio-arazoei lotuta zeudela. Gainera, hobetzeko 23 proposamenetatik 11etan profesionalen arteko informazio, komunikazio eta koordinazioko hobekuntzak aipatzen ziren.

Horren aurrean, komunikazio-kalitatearen azterketa kualitatibo bat egitea hautatu zen pazientearen esperientziaren ezagutzan oinarrituz, eta baita haien behar eta itxaropenena ere gaixotasunean zehar, profesionalen eta pazienteen arteko komunikazio egokirako funtsezko lau atal azpimarratuz: informazioaren kantitatea eta kalitatea; profesionalen komunikazio-gaitasunak; profesionalen arteko koordinazioa; eta erabakiak hartzeko autonomia.

Azterketan ondesteko tumoreak dituzten hamar pazienteek parte



Mediku-kontsulta.

hartu dute, seik taldeko dinamika batean eta lauk elkarrizketa pertsonaletan, eta baita ondesteko tumoreetan esku hartzen duten hainbat zerbitzutako lau medikuk ere (Digestio Aparatua, Onkologia Medikua, Kirurgia eta Onkologia Erradioterapikoa).

Ondorioak eta gomendioak

Azterketaren arabera, mamian eta forman diseinatzeko beharra hautematen da eta informazioa pazienteak onartzeko moduan ematea, haren gaixotasunari hobeto aurre egiteko balioko diona. Gainera, profesionalen komunikatzeko teknikak eta gaitasunak garatzea gomendatzen da pazienteek hobeto aurre egin diezaion eta gaitasun handiagoa izan dezan.

Proiektuak ondesteko tumoreari arreta emateko prozesuan ikuspegi orokorrago, koordinatuago eta integratzaileagoa sartzea aurreikusten du, irtenbideak aurkituz kolostomiaren itxiera-egunaren kezka arintzeko, ostomiari buruzko informazioa ebakuntzaren aurretik emateko aukera aztertuz, beste espezialitateko bateko beste hitzordu batzuekin egokitu daitezkeen hitzorduak optimizatuz, bai eta ondorengo aukera baloratuz ere: espezialitate bakoitzean espezialista bera izatea pazienteak tratatuko duena.

Azkenik, egoera berean dauden pazienteak elkartzeko ekimenak finkatzea oinarritzotzat jotzen da; hala, gaixotasunari aurre egitea errazagoa gerta dakieke, eta Osasunbideari aukera emango dio, laguntza-zirkuituko zenbait alderdiri buruz pazienteek duten pertzepzioaren gaineko informazioa jasotzea.